



Epe bat zabaltzen dugu berriro, IVAPek Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan antolatutako bi prestakuntza-ikastaro online egiteko. Justizia Administrazioako langileek parte hartu ahal izango dute ikastaro horietan, besteak beste:

- **"Emakumeen kontrako indarkeria: oinarrizko ikastaroa"**, euskaraz.
(25 ordu, 2021-05-24tik 2021-06-25era).

Prestakuntza-ekintza honetan, lehentasuna izango dute Indarkeria-Epaitegi Espezializatuetan eta gai horretan eskumenak dituzten Epaitegi Mistoetan eta Fiskaltzan lan egiten duten langileek.

- **"Haurren eta nerabeen kontrako sexu abusuak: oinarrizko ikastaroa"**, gaztelaniaz.
(30 ordu, 2021-05-24tik 2021-07-02ra).

Prestakuntza-ekintza honetan, Instrukzioko Epaitegietan, Epaitegi Mistoetan eta Fiskaltzan lan egiten duten langileek izango dute lehentasuna.

BI IKASTAROETARAKO:

Justizia Administrazioako langileei esleitutako plazak: 13 pertsona ikastaro bakoitzeko.

Izena emateko epea: 2021eko apirilaren 23ra arte (egun hori barne).

Izena emateko modua: behar bezala beteta eskabide-fitxa bidaliz. Fitxa hori enpleguaren atarian dago.

Eskaria bidaltzeko helbidea: justizia.prestakuntza@euskadi.eus

Bi ikastaroen fitxa teknikoa erantsita dago.